

BERTSO POSTALA

Ederra da postal bat jasotzea; norbait gurekin akordatu den seinale. Keinu bat bidaltzea, distantziatik. Lagunak, senideak zaintzeko modu bat, bere txikian.

Bertso postala egingo dugu, nahi dugunari bidaltzeko!





**Maialen
Lujanbio
Zugasti**



HIMALAIATIK POSTALA



Doinua:

*Baserrian jaio nintzen
Neurri berezia*

Behin Maialen Lujanbio postal bat jasotzeko egoeran jarri zuten. Baina ez zen edozein postal...

Saioa: Txapelketa Nagusia, 2001.

Gaia: Zure lagun min bat hil zen joan den astean Himalaian.

Gaur jaso duzu berak handik bidalitako postala.

Kaixo, Maialen: zer moduz?

Oroimena daukat **zugan**,
presente zauzkadalako
nere mendi-**abenturan**.
Zorionean gabiltza
mendiarekin **loturan**;
badakizu, beti gisa,
nahi ta ezinaren **mugan**.
Makaluko gailur horrek
gu jartzen gaitu **liluran**;
etzirako egongo gera
gailurrarekin **joskuran**.
Har zazu muxu bero bat,
jarri konfiantza **gugan**.
Zein bero zen muxua ta
nik zeinen hotz hartu **dudan**!

Negar egin nahi dut baina
ez egitea **hobe da**,
malkoak jausiko dira
bestela postal **gainera**,
ta korritu ta borratu
hemengo musu ta **zera...**
Intzirika hasi nahi baina
nijoa **aguantatzera**.
Imajinatu dezaket
kanpo-base hartan **bera...**
Bere ilusio ta amets
guzia joan da **gainbehera**,
ikurrinarekin joan nahi
zazpi milako **batera**,
ta orain Makalun dago
heriotzaren **bandera**.

Irratiak eman zuen
elur-jauzien **abisu**,
baina zuk ametsarekin
horrenbeste **konpromisu**
bazendun, ta holakotan
egoskor bat **dirudizu**;
aurrera segiko zendun,
beti egin dezu **berdintsu**.
Bizitzan ilusioa
herioren **paradisu**;
gero arte esaten ere
ez didazu utzi, **aizu**;
ta zuri azken hitz batzuk
esan nahiean **naukazu**,
karta bat egingo dizut,
akaso jasoko **dezu**.



Maialenen bertsoaldian, postal bateko **hitzak** ageri dira, postaletik zuzenean ekarrita.
Zein zati dagokio, zehazki, postalari? **Biribildu** dezagun.



Maialenek jaso duen mezuan, osagai hauek agertzen dira, ezinbestekoak direnak postal batean.
Aurkitu ditzagun bertsoan.

- Sarrerako agurra
- Nondik idazten dion, zehaztapena
- Zertan dabilen, azalpena
- Bukaerako agurra



Zergatik erabaki du Maialenek gutuna idazten hastea?



OPORRAK GURE HERRIAN



Doinua:

*Zer da gaur Donostian
Hamarreko txikia*



Peio
Ormazabal
Villanueva

Nerea
Ibarzabal
Salegi

Oporrak gozatzeko ez dago inora joan beharrik, gure herrian bapo pasa genezake. Badirudi, ordea, oporrak opor izateko, kanpora bidaiatu beharra dagoela.

Saioa: Bizkaiko Txapelketa 2016, Zaldibar.

Gaia: Hamaika eta hamabi urteko neba-arrebak zarie. Azaroko zubian ez zinien oporretan kanpora joan. Badakizue zuen gelakide asko nonbaiten egon direla. Peio, eskolara bidean, Nereak opor egunen gaineko egia ez kontetea proposatu deutsu.

Peio Ormazabal

Diru aldetik ez dugu
besteen **nibela**
zure plana Nerea
horren da **itzela!**
Imagina dezagun
txikitan **bezela**
espaziontzi handi bat
dugula **logela**
eta izarretatik
ibili **garela**.

Peio Ormazabal

Zure etxeko sala
zer zabiz **esaten?**
Irudikatu gu geu
toki eder **baten**,
plaiara ez garenez
sekula **joaten**
besteek nahi dutena
pentsatu **dezaten**,
niri garenak ez dit
lotsarik **ematen**.

Peio Ormazabal

Guztia da itxura
inor ez da **salbu**
jendeak zer eiten dau
nahi dauena **saldu**,
bitartean munduak
buelbaka **dihardu**
gazte izan nahi dugun
umeak **gara gu**,
ta bidaia onenak
buruan **dauzkagu**.

Nerea Ibarzabal

Hori ezin da sinestu
baina Benidor **bai!**
Esan ahal dugu plaian
egon garela **alai**,
flotador urdin eta
arrainaren **usai**
ze oporren marrazki bat
egin behar bada, **ai**,
nik gure etxeko sala
ez dut marraztu **nahi**.

Nerea Ibarzabal

Etzetik ez gara irten
oso **aspalditik**
ta zorientsu gara
hori ondo **dakit**,
baina guaiak ere izan
gaitezke **oraindik**
eta egia esateak
lotsa ematen **dit**,
besteak zorientsuago
iruditzen **zaizkit**.

Nerea Ibarzabal

Beti zuk antza gogor
ematen dizu, **ño!**
Egirik nik ez dut nahi
helduta **honaino**,
opor onik ez dugu
eduki **gaurdaino**
esan daigun zapaldu
dugula ehun **laino**,
nahiago gezurti izan
pobre izan **baino**.



POSTAL EREDUAK

Bertso bat osatuko dugu beraz, postalean idazteko.
Nahi badugu, opor garaian bidal genezake, gauden lekuan gaudela.
Edo orain bertan idatz geniezaieke kanpoan ditugun senideei edo lagunei.
Ikus ditzagun ereduak.



Doinua:

**Bertsotan jo ditugu
Hamarreko txikia**

Aupa, Mikel, zer moduz,
polita **Irlanda?**
Ni etxe inguruan
egia **esanda...**
Gure herriko festetan
nolako **parranda!**
Lagunekin pizsinan
uretara **dzanga...**
Aspaldiko udarik
onena **izan da!**

Sonia



Mikel Millington
Porrusalda kalea 2, 1.B
20180 Oiartzun
Gipuzkoa

Kaixo, kuadrilla, Kariben nago
naiz hondartzako **alkate**
dagoeneko koko bat jan dut
ta sei kilo **ahuakate**
palmondo baten azpian nago
zuen mundutik **aparte**
nahiz inbidia apur bat izan
lasai, ulertu **nezake...**
beste bost egun gelditzen zaizkit
agur ta ikusi **arte!**

Sara



Paula Etxebarria
Antton Txistulari 5, 3.A
48902 Barakaldo
Bizkaia



Doinua:

**Mundu honetan holako gauzak
Hamarreko handia**

Ciao, amici, come va tutto?
Italia da **kristona;**
ikusi ditut Pissa dorrea,
Florentzia ta **Errroma**
hango babarrun ta porrusalda
ez badago horren **ona**
hemen pizzaren usain goxoak
zabaltzen du **zoriona**
ni hara ez naiz bueltatu behar
etorri zaitetzte **hona!**

Abraham



Maite Rodriguez
Zapatari kalea 13, 2.D
31800 Altsasua
Nafarroa

Doinua:

**Azken arnasa eman nahi nuke
Hamarreko handia**



IRUDIAK ERE AXOLA DU

Irudi batek mila hitzek baino gehiago adierazten omen du.



Postalaren irudia tentuz hautatzekoa da.

Dendan erosi genezake, edo geuk sortu: gure argazkiekin, marraztuz...

Zein hautatu edo egingo duzu zuk?



BERTSO POSTALA



Doinua:

.....

